

ILLARGIRA GOAZ...

Gizon ezin-egonak, naikoa buruko min izanak ditu toki barrien bila. Gure aurretiko euskaldunak —orain 26 bat mila urte?— lurzati atsegingarri ontara etorriak doguz, eta ez edozelan, zori-zale ta lur barri billa baiño. Zeozek saka eraginda, etorri yakuzan ona. Kolon be, urte-mordo galantak geroago, euskaldunetz inguratuta, orrelaxe joan yakun Ameriketara: adur baten deiera, zeozek bultz-eraginda.

Goizale egiñak gabiltz orain; txorriak, gu baiño azkarrago ikusten doguz, eta arein antzera goiak zear egatu nai. Buru gaiñeko zabal-di er-tzik bakoan milloika ta milloika izar dakusguz, eta areitan zer dagoan jakin miñez, lenengo illargira ta beste zeru-gorputzetara ondoren, egaztu nai dogu. Ta gizakume kaxkar onek, bere gora-naizko ekin bizian, lortu egingo dausku azkenez goialdeak, zati batzuk beintzat, bere mende ta esku jartea. Ezta gitxi!

Gaurkoz, illargira goaz. Obeto esan, lantxo au argitara orduko, gizona —trebe ta azkar— illargi gaiñean daukagu. Ak pozik artuko ete? Sortzetik dogu misterioz betea, negarti ta zoro samarra. Ta ez dakit misterio ta ezkutu orreik iñok jakitea gurako dauanik; ez dakit bere negarren barri iñok izatea naiko dauanik; ez dakit, ez, bere zorakeriak lau aizetara zabaltzea eder izango yakunik. Gu euskaldunik ez gara, lenengotan batez be, besteentzat zabalegiak izan oi. Gure illargi amandrea, gure antzekoa baldin bada, ez ditu, ziurrik asko, bere bizkar-azurrera doakiozan lurtar gizonok arpegi txeratsuz artuko.

Dana dalarik, laster izango dogu ango barri. Azal ta barru zelakoa dan. Otz ala bero, gogor ala bigun dan; urrez ta diamantez, aberastusun aundiakaz beterik daukagun. Zugatzik, ebererik, au da, bizirik ete dan: gizona bizi izateko lain arnas-kai, ta abar. Eguzkiaren indar-saka

noraiñokoa dan; ango indarririk lurtarrok aprobetxatu ete daikegun. Amar urte barru, Von Braun jakitunak diñoanez, illargirako joan-etorria egitea errez izango ete yakun; etxeak eta otelak bertan jasoko ete ditugun. Gaurtik be badira munduan arako tzartelak eskatuta daukiez-nak.

Gizonak, ontara baiño len, goiak azpiratzeko noski, buru-auste gorriak erabilli ditu; batez be teknika saillean. Zenbat saio ta leiaketa tresnaz ta gizonez; Zenbat gora-bera, zenbat jakintsu talde lanean! Gauzak seguru ipiñi arte arriskutsua ta ausarta zan gero asmo bikain ori amaira eroan nai izatea!

Illabete ta erdi dala, iru izarlari azkar illargitik ur-ur ibilli yakuzan. «Apolo X»-ren ortzi-ontziaren barruan. Goi artan, txerpolari antzera makiña bat dantza ta dardar-ikara egin ondoren, iruretatik Cernan eta Stafford ziran illargia ikutu nairik, aren ur samar ikotika ebiltzanak. Sor ta lor, arriturik, lur-gaiñetik arein pausuak jarraitzen ebezanai, biak batera lez ots egin eutsen: «Eldu gara! Bai, esan munduari!». Ta, izan be, illargiaren azal erabako, nabar-kolorga artatik amalau kilometru ta erdira aurkitzen ziran.

Jatsi-leku ori ikusi ta azterkatuaz, gauzarik zailena egiña dala, esan gengike. Areik irurak, zortzi egunez, aurretik zer egin erabagita eukienez, zeatz eta meatz, ia doitasun osoz, bete al izan eben euren egitekoa. Egitekorik arriskutsuena nunbait. Garai artan, izan be, —ille bi dirala— giza istoriak ezagutu dauan marketatik bikaiñenatariko bat ausi eben. Gizaldi onez, bere aurrera jobear itsu ta porrokatuan, gauza arri-garriak burutu izan ditu; baiña au lakorik ez. Gu bizi garean izarbel ontako iñortxo be ezta eldu egundo, illargiari buruz, aren arpegia ain ur ta esku-mende eukitera.

Gu, ostera, emen gagoz ara joan

diranen zain. Jakin-min gorritan! Toki askotan, begiak firñir, biotza urduri, arlo orretan ain jakintsukilan egin dabenak batez be, teknikazko indarketa txalogarri baten ondoren, ardura ta leia bizitan daukaguz ango arri koskor batzuk aztertu naiean. Ulertzekoa da. Ta ederra, ziñez, gaur egunean bizi izatea! Oi, illargiaz ames egin ta, barrero itxartzean, illargia bera geure esku mendean... Ez al da zoragarria? Ta Jainkoari eskerrak emoteko beste zio ta motibu aillagiñakoa!

Ez dagoz lo Houston'en lan dagien jakintsuak. Eta gizona illargiraiño eroateko alegiñak ezeze, gizon orrek andik ekarriko ditun mineral ta gaiñerakoak —lur, auts, arri ta abar— miatu, aztertu ta sailkatzeko be ardura aundia ipiñiko dabe. Ontan, egia esateko, lur ez-jakiñean lan egingo dabe lenengotan; mikrobi ta azi pozoidunak euki leikezala, esan daroe, ango mineralak, eta kontuz ibiltekoa dala. Baita kontuz jokatu bear ei da emendik ara ezer txarrik ez eroateko be; bazterrak kutsutu ez daitezkan. Iru izarlariak, beraz, egun askotan, ara baiño len, gela itxietan sartuta euki dabez.

Zer guztioi neurriak artu ta ardu-raz ibilli arren be, bai motorrakaitik bai izarlarien ibilliakaitik, ango ta emengo gorpuzkien artean kutsuturiko zerbait, naitaez zabalduko da, asko luzatu barik. Baiñan bildur ta arrisku danok azpiratuak izango diralakoan dagoz astronautikan lan dagien gizon argiak. Dana dala, beiñola sabel bat beretik urteniko izar adiskide bion arteko artu-emon eta zer-ikusiak gero ta maite-korrangoak izango dira, gizaldiak zear. Eta ziur-ziur gagoz, aurreran-tzean ez yaku orain arte baizen ezkututsu ta ixil agertuko gure auzoko izarbel motel ori, gure asabak amandrea deitzen eutsen illargia noski.

A. ONAINDIA